



HAUR HEZKUNTZA eta LEHEN HEZKUNTZAKO GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)

2025/2026

Koordinatzaileak:

Atzerriko Hizkuntza Minorra: Garbiñe Bereziartua

Euskara, Hezkuntzarako Tresna Minorra: Izaro Arroita

Haur Hezkuntzarako Tailerrak Minorra: Joxemari Etxabe

Hezkuntza Berezia Minorra: Nerea Permach

Lehen Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak Minorra: Ane Izagirre

Aurkibidea

1.	GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRAL) OINARRIZKO DESKRIBAPENA.....	3
1.1.	Lan motak.....	4
2.	GRALa GARATZEKO PROZEDURA.....	5
2.1.	Abiapuntua.....	5
2.2.	Diseinua eta Plangintza.....	6
2.3.	Garapena.....	8
2.3.1.	GRALa prestatzeko bilerak.....	8
2.3.2.	Kronograma orientatzailea.....	8
2.3.3.	Idatzizko txostenaren egitura.....	9
2.3.4.	Lanaren luzera eta formatua.....	10
2.4.	Bakarkako ahozko defentsa.....	11
2.5.	Ebaluazioa.....	11
3.	PROZEDURA ADMINISTRATIBOA.....	14
3.1.	Gaien eskaintza.....	14
3.2.	Gaia eta zuzendariaren hautapena eta esleitzea.....	15
3.3.	Epaimahaiak osatzea.....	16
3.4.	Matrikulazioa, defentsa eskaera, izenburu aldaketa eta zuzendariaren defentsa berrikuspena.....	16
3.4.1.	Salbuespen kasuak: gainditzeko soilik GRALa duten ikasleak.....	16
3.5.	Defentsa ordua eta erreserbatutako gelaren notifikazioa.....	17
3.6.	Lana ADDI Akademikora igotzea.....	17
3.7.	GRALaren defentsa.....	18
3.8.	Ebaluazioa eta kalifikazioa berraztertzeke eskaera.....	18
4.	Parte hartzen duten eragileak.....	19
4.1.	GRALaren zuzendariaren eginkizunak.....	19
4.2.	Ikaslearen eginkizunak.....	20
4.3.	Epaimahaia.....	20
4.4.	GRAL Batzordea.....	21
	ERANSKINAK.....	21
1.	eranskina: GRALaren ildo nagusiak lantzeko aztergai orientagarriak.....	21
2.	eranskina: Azalerako eredia.....	23
3.	eranskina: GRALak dakartzan inplikazio etikoak aitortzeko dokumentua.....	24
4.	eranskina: Zuzendariaren ebaluazio-orria.....	26
5.	eranskina: Epaimahaikideen ebaluazio-orria.....	29

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)

Txosten honek Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean GRAL) bideratzeko laguntza eskaintzen die lan honetan parte hartzen duten eragile guztiei: ikasleei, zuzendariei eta epaimahaiko partaideei. Gida hau ikastegiak onartutako oinarritzko arautegiaren barruan burutu da.

1. GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRAL) OINARRIZKO DESKRIBAPENA

GRALa 12 kredituko irakasgaia da eta bere prestakuntza-prozesuaren bidez, ikasle bakoitzak erakutsiko du Graduan eskatutako konpetentziak bereganatu dituela.

EHUko Akademi Antolakuntzaren ebazpenak dioen bezala, GRALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, bakarka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean. GRALean Graduako ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten konpetentziak eta trebetasunak bildu eta garatuko dira (2. artikulua, 2.1 atala, 2223/2011 dekretua, EHAA).

GRALaren konpetentziak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza Graduei buruzko irakaskuntza-proposamenen arabera, honako hauek dira:

- Lortutako ezagutza teorikoak eta praktikoak erabiltzea, teoria eta praktika egungo hezkuntza- errealitatearekin lotzea eta ezagutza berriak sortzea irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko.
- Informazio garrantzitsua aukeratzea, aztertzea eta sintetizatzea, eskolatze-prozesuak hobetuko dituzten proiektuak diseinatze aldera.
- Autonomia adieraztea heziketa-arloko gogoeta, argudio, iritzi akademiko eta profesionaletan, baita erabakiak hartzerakoan eta arazoak konpontzerakoan ere, banaka zein talde barruan.
- Komunikazio-kompetentzia adieraztea, ahoz zein idatziz, GRALean zehaztutako hizkuntzan.

GRALa ikasketa-planaren azken fasean egingo da, eta Graduan parte hartzen duten sailtako irakasle batek zuzenduko du. Prestakuntza-, berrikuntza- edo ikerketa-proiektua izan daiteke, gero epaimahai baten aurrean defendatu beharrekoa.

GRALa defendatu eta ebaluatzeko, ikasleak gaindituta izan beharko ditu ikasketa planeko gainerako irakasgai guztiak eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak kenduta, graduako titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kredituak eduki beharko ditu.

1.1. Lan motak

GRALaren konpetentziak eta edukiak aukera emango du ikasle bakoitzaren prestakuntza finkatzeko eta bere lanbidea sakonago ezagutzeko.

GRALa izan daiteke:

- Lan esperimental edo teorikoa, graduarekin lotua, hezkuntza esparruan garatu daitekeena.
- Graduari loturiko bibliografiaren inguruko ikerketa edo azterketa.
- Bestelako lan teoriko edo praktikoa, sailek (irakasleek edo ikasleek eurek) proposatua, aurreko aukeretan jasotzen ez direnak eta, beti ere, onartutako araudia errespetatzen dutenak.
- Berrikuntzako proposamen originalak

Oro har, Gradu Amaierako Lanetan zainduko da EHUren i3 hezkuntza eredua sustatzen dela. Ildo horretan, erakundeek dituzten benetako beharrei edo erronkei buruzko Gradu Amaierako Lanak sustatuko dira, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako Gradu Amaierako Lanak egitea bultzatuko da eta lan esparru horien berri emango da irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

2. GRALa GARATZEKO PROZEDURA

GRALak galderak izan behar ditu abiapuntu. Graduan ematen dugun irakasle-formakuntza, irakasle-profil zehatz bat izatera orientatzen edo bideratzen da. Hain zuzen ere, irakasle hausnartzaileak sortu nahi ditugu.

Hezkuntza-errealitatea aldakorra da eta lan-testuinguruetara egokitzeko galderak formulatzen eta horiei erantzuna bilatzen ikastea funtsezkotzat jotzen dugu. Hartara, ikasketa autonomora zuzentzen dugu ikaslea, bizitza pertsonal eta profesionalaren garapena etengabea dela kontuan hartuz eta ikasten jarraitzearen garrantzia bermatzeko asmoz.

2.1. Abiapuntua

GRALaren abiapuntua ikasleek urte hauetan lortutako prestakuntza izango da.



1. irudia. Graduak lau maila akademikoak

Fase hau orain arte izandako prestakuntzan zentratuko da; hau da, ikasle bakoitzak bere hezkuntza-diskurtsoa eraikiko du, eta horretarako, iritzi edo ikuspegi propioak garrantzitsuak badira ere, oinarri sendo batzuk ere erakutsi beharko ditu graduan zehar lortutako prestakuntzaren isla izango direnak.

2.2. Diseinua eta Plangintza

Bigarren fase honetan, lana egiteko proposatzen zaizkion bost ildoen artetik bat aukeratu behar du ikasleak. Proposatzen diren ildoek bere baitan hartzen dituzte irakasle batek bere garapenean zehar landuko dituen alderdiak. Bost ildook honako hauek dira:

- Hezkuntza-eragileak
- Irakasle-identitatea
- Ikaskuntza-irakaskuntza ekintzak
- Hezkuntza-tresnak
- Sortzen ari diren ildo berriak

Irakasle batek alderdi horiek guztiak jorratzea funtsezkoa dela uste dugu eta graduari zehar alderdi horiek landu badira ere, GRALarekin horietako batean gehiago sakontzeko proposamena egiten da. 1. eranskinean ildo bakoitzarekin lotutako adibide zehatzak topatuko dituzue.

Aukeratzen den ildoaren barruan gai bat hautatu eta hori jorratu beharko du ikasleak, gaiari buruzko dokumentazioa eta helburuak definituz. Horrez gain, gaiak galdera bat edo gehiagori erantzuteko aukera eman behar dio ikasleari. Hortaz, aukeratzen den gaia gaur egungo gizartean eta hezkuntza-testuinguruan dauden egoerei aurre egiteko lagungarria izango da.

HEZKUNTZA-ERAGILEAK:

Hezkuntza-eragile desberdinez osatzen da gure gizartea: irakasleak, ikasleak, familiak, eta komunitate-eragileak, eta horiek kulturarekin eta komunitatearekin konpromiso zuzena dute.

Esparru honetan, hezkuntza-eragileek gure testuinguruarekin duten harremana azter daiteke. Eszenatoki batzuen azterketa egitea proposatzen da. Baina ikasleek beren proposamenak ere egin ditzakete nahi izanez gero. Beren lana litzateke hezkuntza testuinguruetara joatea eta bertan egiten dena aztertzea.

IRAKASLE-IDENTITATEA:

Ilde honetan, abiapuntua Gradu ikaslea bera da. Irakasle izateko lan-esperientziak duen garrantzia erabatekoa da, baina hemen formakuntzan oinarrituko gara batez ere; hain zuzen ere, formakuntzak irakasle bilakatzeko prozesu horretan izan duen eraginaz arituko gara. Identitate horren sortze-prozesuan garrantzitsuak izan dira bai oinarri teorikoak bai Practicum-eko esperientziak. Bere identitatean sakontzeko **“bizitza-historia”** bat osatzea izan daiteke aukera bat; beste irakasle baten historiaren bitartez bere identitatearen ikerketa propioan murgiltzea adibidez.

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA EKINTZAK:

Ilde honek estrategia metodologiko eta didaktikoekin lotura du. Hain zuzen ere, eskola testuinguruetan oinarrituz, hezkuntza-ekintzak eta -estrategiak izango dira aztergai. Eskoletan egiten diren ekintzetan oinarritzen denez, proposatu daiteke bertara joatea eta ekintza zehatzen azterketa egitea, eskuhartze bat diseinatzea eta aplikatzea.... Aintzat hartu behar da, GRALa ez dela Practicumaren atal bat; hau da, praktikaldia lagungarria izan daiteke GRALa garatzeko, baina azken honek bestelako sakontasuna eskatzen du.

HEZKUNTZA-TRESNAK:

Hezkuntza formal, ez-formal eta informala eremuetan hezkuntza-tresnak beharrezkoak dira. Tresna horiek dira lotura dutenak legeekin, dokumentazioarekin, hezkuntza-testuekin nahiz informazio- eta komunikazio-teknologia berrieekin; izan ere, beharrezkoak dira hezkuntza-ekintzak aurrera eramateko. Beraz, hezkuntza-tresna horien azterketa, hobekuntza edo proposamen berriak bideratu daitezke ilde honetan.

SORTZEN ARI DIREN ILDO BERRIAK:

Ilde honetan, iruditeria pedagogiko berriak proposatu eta garatu beharko dira. Hezkuntzan loratzen ari diren tresnak eta proposamenak aztertzeko edo garatzeko aukera izango du ikasleak nahi duen esparruarekin erlazionatzeko. Ikastetxeetan, hezkuntza proiektu berri asko garatzen ari dira, batzuetan Hezkuntza Sailak berak bultzatuta, beste batzuetan Berritzeguneak edota ikastetxeak berak.

2.3. Garapena

Hirugarren fase honetan, aukeratu dugun ildoaren barruan definitutako gaia garatu beharko da. Gaiari buruzko informazioa bildu ostean, informazio horren kudeaketa egingo da atal honetan. Prozesu guztia idatzizko txosten batean jasoko da eta hau garatzeko zenbait kontu hartu beharko dira kontuan:

2.3.1. GRALa prestatzeko bilerak

GRALaren gaia eta zuzendaria esleitzen diren unetik hasiko da hura prestatzeko prozesua eta ikasturte osoa hartuko du lana garatzeak. Ikasleen jardun autonomia honakoen bidez osatuko da:

- **Ikastegiak bideratutako prestakuntza jarduerak:** Prestakuntza-jarduerak ikaslea gidatuko dute GRALa prestatzeko egin behar diren urratsetan. Bertan landu daitezkeen edukiak askotarikoak dira: bibliografia bilatzea, datu-baseak, idatzizko lana egituratzea, jasotako datuen analisia nola gauzatu, gai etikoak, estilo kontuak, ahoz aurkezteko eta defentsa prestatzeko aholku praktikoak... Prestakuntza jardueraren bat antolatzen bada, ikasle zein zuzendariak aurrez jakinarazpena jasoko dute.
- **Mintegiak:** Mintegietan, berriz, ikasleek beren kideei eta zuzendariari erakutsiko dizkiete GRALean egindako aurrerapenak.
- **Zuzendariaren bilerak:** zuzendariaren eta ikaslearen artean egiten diren bilera indibidualak dira, GRALaren atalak zehazteari edo hurrengo urratsak adosteari begirakoak.

2.3.2. Kronograma orientatzailea

Ikasle bakoitzak gutxienez bilerak egingo ditu bere zuzendariarekin, honako puntu hauek zehazteko xedez:

- Aukeratutako gaia zein ikuspuntutatik jorratuko den eta nola diseinatuko den eztabaidatzea eta erabakitzea.
- Lanaren garapena, emaitzen azterketa, hurrengo urratsen zehaztapenak, ondorioak eta hobekuntza proposamenak aurkeztea.
- Txostena eta ahozko defentsa prestatzea.

Horrez gain, **orientazio modura** kronograma hau baliatu daiteke urratsetan aurrera egiteko¹:

- Abendua-urtarrila: marko teorikoaren entrega
- Martxoa-apirila: metodoa eta emaitzak edo esku-hartzea,,,
- Maiatza: lan osoaren behin-behineko idatzaldia

Oro har, zenbait entrega egingo ditu ikasleak ikasturtean zehar. Dena den, zuzendariaren eta ikaslearen artean adostuko dira epe zehatzak eta lan erritmoa. Zuzendariari lanaren azken idatzaldia matrikula egin baino lehenago entregatuko zaio. ez da azken orduan lan amaiturik onartuko, aldez aurretik zuzendariak lanaren bilakaeraren berririk izan ez badu.

2.3.3. Idatzizko txostenaren egitura

- Azala (ikus eredua 2. eranskinean)
- Laburpena (gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez edo frantsesez; gehienez ere 100 hitzekoa hizkuntza bakoitzean) eta gako hitzak (gehienez 5)
- Aurkibidea (kapituluen eta atalen izenburu osoak, bakoitzari dagokion orrialde-zenbakiekin)
- Sarrera (gaiaren garrantzia, lanaren helburuak eta GIHei ekarpena²)
- Marko teoriko eta kontzeptuala
- Metodoa (lana egiteko eraman den prozesua, esku-hartzearen testuinguruaren deskribapena,...)
- Emaitzak edo esku-hartzea edo...
- Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak
- Erreferentzia bibliografikoak (APA azken bertsioaren jarraibideak beteta)

¹ Uztaileko deialdirako kronograma orientatzailea da hau. Gainontzeko deialdietan, lanaren egoeraren arabera egokituko da kronograma.

² Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, Gradu Amaierako Lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta JGHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen ditzake. Ikasleak, erreferentziazko JGHak lanaren sarreran aipatuko ditu, baita GAURen defentsa eskaera egiterakoan ere.

- Eranskinak (ezinbestean erantsiko da GRALak dakartzan inplikazio etikoak aitortzeko dokumentua, ikus 3. eranskina)

2.3.4. Lanaren luzera eta formatua

Txostenak gutxi gorabehera 60.000 karaktere izango ditu, hutsuneak zenbatu gabe, eta azala, aurkibidea, erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak kontuan hartu gabe. Ikasleak GRALa beste euskarri batean aurkezten badu ere (bideoa...), txosten bat idatzi beharko du egindakoa labur azalduz. Kasu horretan, 15.000 eta 40.000 karaktere artekoa izan beharko du txostenak. Lana pdf formatuan igo beharko da ADDI Akademikora.

Horrez gain, Gradu Amaierako Lana garatu eta idazteko ikasleak ondoko irizpideak beteko ditu, lanaren zuzendariaren laguntzaz:

- EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea.
- Hizkera inklusiboa erabiltzea eta generoren ikuspegia txertatzea
- Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktiketarik, adibidez) eratorritako informazioa erabiltzen den kasuetan, pertsonei buruzko informazioa bakarrik akademikoki justifikatuta badago erabiliko da eta beti ere modu anonimoan.
- Eranskinetan, ezinbestean, GRALak dakartzan inplikazio etikoak aitortzeko dokumentua erantsi beharko da, ikasleak eta zuzendariak sinatuta (ikus 3. eranskina).

Formatuari dagokionean, beste irizpide hauek ere kontuan hartuko dira:

- Marjinak: goikoak eta behekoak 2,5 cm-koak eta alboetakoak 3 cm-koak.
- Letra mota: Times New Roman 12, Calibri 12 edo Arial 11.
- Lerroartea: 1,5 puntu.
- Paragrafo-justifikatuak.
- Aurkibide orokorra bi marjinen erdian lerrokatuko da, testu nagusiaren aurretik eta azalaren ondoren. Tituluak eta azpitituluak ezkerrean jarriko dira eta titulu bakoitzari dagokion orrialdearen zenbakia eskuinean, puntuen bidez bereizita.
- Orrialde zenbakituak, testu nagusiaren bigarren orrialdetik aurrera.

- Testuaren barruko aipuak: 40 hitzekoa baino gutxiagokoa bada, testuaren barruan joango da, kakotx artean. Aldiz, 40 hitzetik gorakoa bada, beste paragrafo batean joango da, lerroarte bakunaz eta tartean 0,5 cm-ko koska utziz. Ez da kakotxik jarriko eta letra tamaina puntu bat txikiagoa izango da (Times New Roman 11, Calibri 11 edo Arial 10).
- Oin-oharrak: orri-oinean jarriko dira, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta, dokumentu osoaren letra mota berarekin (10 tamaina), 1,0 puntuko lerroartearekin eta justifikatuta.
- Tituluak eta azpitituluak, zenbaki txikienetik handienera ordenatuta eta letra lodiz.
- Taulak, grafikoak edo irudiak: APA arauak zehazten duten moduan zenbakitu eta izendatuta
- Bibliografia: erreferentzia bibliografikoen zerrenda eta testu barruan horien aipamenak idazteko, APAren azken jarraibideak beteko dira

2.4. Bakarkako ahozko defentsa

Defentsa egunean, ikasleak bakarkako ahozko defentsa egin beharko du epaimahai baten aurrean. Saio publikoa izango da eta webguneko kronograman adierazitako egunetan izango da.

Defentsaren egun eta ordu zehatza, epaimahaiaren osaera eta defentsarako lekua, aldeztu aurretik jakinaraziko dio zuzendariak ikasleari.

Ikasle bakoitzak Gradu Amaierako Lanaren bakarkako ahozko aurkezpen formala egiteko 10-15 minutu izango ditu eta denbora tarte horretan gutxienez helburuak, metodologia, emaitzak eta ondorioak azaldu beharko ditu (euskarri digital batekin osatzea gomendatzen da). Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, iruzkin edo iradokizunei erantzun beharko die, beste 10-15 minututan. Hortaz, ikasle bakoitzaren defentsa 20-30 minutukoa izango da guztira.

2.5. Ebaluazioa

Ikasleak izandako prozesua GRALaren zuzendariak ebaluatuko du. Kontuan izango du ikasleak izan duen parte-hartzea prestakuntza-jardueretan, segimendu-

mintegietan eta bileretan. Azken emaitza, zuzendariaz gain, horretarako eratutako hiru kideko epamahaiak ebaluatuko du.

Egindako lana baloratzeko, zuzendariaren ebaluazio-orrian (ikus 4. eranskina) ageri diren adierazleak hartu daitezke kontuan. Baloratuko dira, halaber, gaiaren sakontasuna, egindako analisiaren konplexutasuna, hezkuntzan duen garrantzia, originaltasuna eta abar.

Defentsa ebaluatzeko, aldiz, epaimahaikideen ebaluazio-orrian (ikus 5. eranskina) dauden adierazleak hartu daitezke kontuan.

Ebaluazio-orri hauek orientabide gisa erabiltzeko dira eta ez dira derrigor aplikatu behar, baina baliagarriak izan daitezke epaimahaian kalifikazioak adosteari begira edo zuzendariak bere ikasleen lanak baloratzeari begira.

GRALaren kalifikazio orokorra honela egingo da:

- Zuzendariaren ebaluazioa: %40.
- Epaimahaiaren ebaluazioa: %20 kide bakoitzeko (guztira, azken notaren %60).

GRALa gainditzeko, zuzendariaren ebaluazioa eta epaimahaiko 3 kideetako biren txostenek aldekoak izan behar dute.

Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kuantitatiboa ere adieraziko da.

- Ez aurkeztua (EA)
- [0, 5): Gutxiegia (G)
- [5, 7): Nahikoa (N)
- [7, 9): Oso ongi (OO)
- [9, 10]: Bikain (B)

Ohorezko matrikula aipamena egin ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei. Aipamen hori gehienez ere ikasturte bakoitzean Gradu eta irakasgai honetan matrikulatutako ikasleen ehuneko bosti eman ahal izango zaie, epaimahaiek egindako proposamenak GRAL Batzordeak aztertu eta erabaki ondoren.

Zuzendariak zein epaimahaikideek plagioa detektatzen badute edo horren susmoa badago, EHUren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>). Horrek 0 puntuko

kalifikazioa ekarriko luke jarduera edo lan akademikoen azken bertsioan hautematen bada; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak hasieratik jarraitzea plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko: <https://labur.eus/uZjfo>

Horregatik, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziaztea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da:

- <https://labur.eus/1F1U0>
- <http://hdl.handle.net/10810/42398>

Halaber, adimen artifizialaren (itzultzaileak barne) erabilera aitortzea beharrezkoa da honako irizpide hauek erabiliz: <https://labur.eus/LLDHk>. EHUko protokoloaren arabera, iruzur akademikoa danorberak egin ez duen produktua norberak egindakogisa aurkeztea, eta horrela sailka daiteke AA erabiltzea eta horren berri ez ematea. Ondorioz, hura erabiltzeko, ezinbestekoa da gardentasunez jokatzeko, egilearen aipamena egitea eta erabilera etikoabermatzeko. <https://www.ehu.es/documents/d/bilboko-hezkuntza-fakultatea/ehun-aa-erabiltzeko-printzipio-eta-gomendioak>

Gramatika, adierazpena edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzaileraren erabilera babestea ere garrantzitsua da. Gida hurrengo estekan eskura daiteke: <https://labur.eus/Sxj8Y>

GRAL ebaluazioaren berrikuspena edo erreklamazioa Unibertsitatean ebaluazio arloan dagoen Araudiaren arabera egingo da. Ebaluazioaren berrikuspena epaimahaiak berak egingo du lehen instantzian; hurrengo instantzian, GRAL Batzordea arduratuko da berrikuspenaz eta, horren ebazpenari, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Unibertsitateko Errektorearen aurrean.

3. PROZEDURA ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, GRALa egiteko jarraitu behar den prozesu administratiboa azalduko dugu. Bertan eman beharreko urrats nagusiak zehazten dira³.

- Gaien eskaintza
- Gaia eta zuzendariaren aurre-hautapena eta esleipena
- Epaimahaiak osatzea
- Matrikula, defentsa eskaera, izenburu aldaketa eta zuzendariaren defentsa berrikuspena
- Defentsa ordua eta erreserbatutako gelaren notifikazioa
- Lana ADDI Akademikora igotzea
- Bakarkako ahozko defentsa
- Ebaluazioa eta kalifikazioa berraztertze eskaera

3.1. Gaien eskaintza

GRAL gaien eskaintza honela osatuko da:

- GRAL teknikariak sail bakoitzari adieraziko dio eskaintzea dagokion GRAL kopurua.
- Saileko koordinatzaileak, sailean irakasle bakoitzaren GRAL eskaintza adostu ondoren, teknikariari banaketa kopuruak jakinaraziko dizkio. Irakasle bakoitzari ikasturte bakoitzean, gehienez 6 GRAL esleitu dakizkioke (beste ikasturtetako lanak kontuan izan gabe).
- Irakasleak GAURen bere GRAL eskaintza egingo du, gaia eta hizkuntza eskaintza zehaztuta. Proposatutako gaiak Graduan lortu beharreko konpetentziekin koherenteak izan beharko dute. Halaber, gaiak esanguratsua izan behar du, ikasleak aukera gisa har dezan bere prestakuntza finkatzeko eta bere lanbidea sakonago ezagutzeko.
- GRALa esleitu ondoren, ikasleak gai ezberdin bat proposa diezaioke egokitu zaion zuzendariari. Proposamenak, dena den, ikuspegi teoriko-praktikotik

³ Urrats hauek definitzeko *Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2023ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartua* eta *822/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen*a kontuan hartu dira.

behar bezala arrazoituta eta Graduko konpetentziei egokituta egon beharko du, baita Minorrean zehazki lantzen direnei ere. Guztiarekin ere, zuzendariaren esku egongo da proposamen berria onartzea edo ez.

3.2. Gaia eta zuzendariaren hautapena eta esleitzea

GRAL gai bat aukeratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasleak 1., 2. eta 3. mailetan 168 kreditu gaindituta izatea eta laugarren mailako ikasgai guztietan matrikulatuta egotea (GRALean izan ezik). Hau da, GRALa esleiturik izateko, gehienez ere 12 kreditu izan daitezke lehen hiru ikasturteetan gainditu gabe eta ezinbestekoa da irakasgairen batean (edo irakasgai guztiak gainditu diren kasuan, GRALean bertan) matrikulatuta egotea.

Ikasleak ikasturte hasieran (urtero zehaztuko den kronogramaren epeak errespetatuaz) dagokion minorreko GRAL eskaintzaren hautapena egingo du GAUR aplikatiboaren bidez. Eskaintzen diren GRAL guztiak norberaren lehentasunen arabera ordenatzea gomendatzen da, aukeraketa kopurua esleipenerako nahikoa ez bada, ikasleak esleitu gabe geratu diren GRALen artean aukeratu beharko du eta.

Ondoren, behin-betiko esleipena ikasleen batz besteko notaren arabera burutuko da. Esleipen honek urtebeteko iraupena izango du eta, GRALa defendatzen ez bada, automatikoki beste urtebetez luzatuko da, baldin eta dagokion epeetan uko egiteko eskaera burutzen ez bada.

Bi urte igaro ostean, automatikoki GRAL gaia eta zuzendaria desesleituiko dira, ikasleak eta zuzendariak, adostasunez, kontrakorik adierazten ez badute. Kasu honetan, ikasleak eta zuzendariak esleipena mantentzeko eskaera egin beharko dute practicum bulegoan, horretarako ezarritako epearen barruan. GRAL Batzordeak eskaera hauek aztertu ondoren, erabakia hartuko du. Erabakia baiezkota balitz, ikaslearen eta zuzendariaren arteko esleipenak beste ikasturte batez jarraituko luke.

Zuzendaritza ikastegitik kanpoko espezialista batekin edo Graduarekin zerikusirik ez duen sail batekin partekatzen bada, GRAL Batzordearen onarpena beharko da.

3.3. Epaimahaiak osatzea

Epaimahai bakoitza hiru kidek (epaimahaiburuak, idazkariak eta bokalak) eta ordezeko batek osatuko dute, eta guztiak izan beharko dira graduako titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.

Urtarrilean, GRAL Batzordeak epaimahaiak osatuko ditu, baita kide bakoitzari esleitzen zaion kargua ere. Epaimahai hauek ez dira aurrez hitzartuko.

Ikasturteko epaimahaiak webgunean argitaratuko dira eta ikasturteari dagozkion hiru deialdietarako epaimahai berdinak mantenduko dira (otsaila, uztaila eta iraila).

3.4. Matrikulazioa, defentsa eskaera, izenburu aldaketa eta zuzendariaren defentsa berrikuspena

GRALaren matrikula ikasturtean zehar egingo da (otsaila, uztaila eta irailean) GAUREn, ikasturtero argitaratuko den kronogramaren datak kontutan izanik. Matrikulatu ahal izateko, ikasleak gaindituta eduki beharko ditu ikasketa-plana amaitzeko gelditzen zaizkion irakasgai guztiak (ikus 3.2 atala).

Fakultateak hiru defentsarako deialdi eskaintzen ditu ikasturte bakoitzean (otsaila, uztaila eta iraila) eta matrikulak bi deialditan aurkezteko aukera ematen du. Iraileko defentsarako matrikula egiten denean, ordea, hau ikasturteko azken deialdia denez, matrikulak deialdi batera bakarrik aurkezteko eskubidea ematen du.

Matrikula egin ostean, ikasleak defentsa eskaera egin beharko du GAUREn, dagokion deialdiko prozeduran azaldutako epeetan. Defentsa eskaeran ikasleak aukera izango du GRALeko izenburua aldatzeko. Izenburu hori izango da espediente akademikoan agertuko den behin-betiko izenburua.

Aldi berean, zuzendariak defentsa eskaeraren jakinarazpena jasoko du eta honen berrikuspena egin beharko du GAUREn, dagokion epeetan eta oniritzi txostena igota.

3.4.1. Salbuespen kasuak: gainditzeko soilik GRALa duten ikasleak

Ikasleari Gradua amaitzeko GRALa bakarrik geratzen zaionean (egin ez duelako edo gainditu ez duelako), GRALaren matrikula uztailean egin beharko du zuzendari bat

esleiturik izan nahi badu. Hala ere, iraileko deialdiaren ondoren, soilik GRALa duten ikasleak identifikatuko dira eta mezu bat bidaliko zaie urriaren 30a baino lehenago matrikula egin dezaten.

Ezin izango zaie GRALik esleitu matrikula indarrean ez duten ikasleei. Hortaz, urriaren 30erako, GRALean matrikulatuta ez dauden ikasleen GRAL esleipena bertan behera utziko da.

3.5. Defentsa ordua eta erreserbatutako gelaren notifikazioa

Defentsarako eguna webgunean ageri den kronograman zehaztutakoa izango da. Epaimahaikidetako batek ezin izango balu egun zehatz horretan egon, kronograman zehaztutako defentsa astean zehar egingo dela bermatu beharko da eta minorreko GRAL koordinatzaileari adierazi.

Epaimahaikideren batek arrazoi justifikatuarekin bere ezintasuna adieraziko balu defentsa egunean aritzeko, irakasle horren sailak beste irakasle bat izendatu beharko du hura ordezkatzeko eta minorreko GRAL koordinatzaileari eta GRAL teknikariari adierazi.

Aldiz, huts egitea azken 24 orduetan jakinarazten bada, tribunalerako izendaturiko ordezekoak beteko du haren tokia.

Deialdi bakoitzaren aurretik epaimahaiko idazkariak ardura hartuko du gainontzeko kideekin harremanetan jartzeko, defentsa ordua eta gela adosteko (eta erreserbatzeko).

Horiek adostuta, idazkariak defentsa eguna, ordua eta gela jakinaraziko dizkio GRAL teknikariari. Era berean, zuzendari bakoitzak bere ikasleei defentsa noiz eta non izango den jakinarazteko ardura hartuko du.

3.6. Lana ADDI Akademikora igotzea

Zuzendariaren berrikuspena burututa, ikasleak dagokion epean bere lana ADDI Akademikora igo beharko du. Lanaren bertsio hau behin-betikoa izango da eta honen kopia da, hain zuzen, epaimahaikideek jasoko dutena. Lana igotzeko eman beharreko

urratsak webgunean dagoen gidan ikus daitezke:
<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gralen-matrikula>

Lana igota, epaimahaikide bakoitzak jakinarazpena jasoko du lana ADDI Akademikotik deskargatu ahal izateko.

3.7. GRALaren defentsa

GRAL defentsa egiteko ezinbesteko baldintza da *Gradu Amaierako Lana* ikasgaia matrikulaturik izatea, defentsa eskaera egina eta zuzendariak berrikuspena egina izatea, baita lana ADDIra igota izatea ere.

Horiek beteta, GRALa garatzeko prozeduran adierazitako irizpideak aintzat hartuta (ikus 2.4. atala) defentsa egingo da.

Defentsa amaituta, epaimahaikideek, lanaren eta defentsaren kalifikazioa adostuko dute. Epaimahaiaren ebaluazio-orria (5. eranskina) ez da derrigor aplikatu behar, baina baliagarria izan daiteke kalifikazioa adosteari begira. Desadostasunik egongo balitz, ebaluazio-orria baliatuta epaimahaikide bakoitzak bere portzentaia (%20) adierazi eta justifikatuko du. Edonola ere, GRALa gainditzeko, zuzendariaren ebaluazioak eta epaimahaiko 3 kideetako biren txostenek aldekoak izan behar dute.

3.8. Ebaluazioa eta kalifikazioa berraztertze eskaera

Defentsa-saioa amaitutakoan, epaimahaiak ikaslearen azken kalifikazioa adostuko du eta berrikuspenerako eguna eta ordua finkatuko du. Idazkariak hartuko du kalifikazioa eta berrikuspen data GAUREn grabatzeko ardura.

GRALaren berrikuspena edo erreklamazioa Unibertsitateak ebaluazio arloan duen Araudiaren arabera egingo da. Ebaluazioaren berrikuspena epaimahaiak berak egingo du lehen instantzian; hurrengo instantzian, Ikastegiko Erreklamazio Batzordea arduratuko da berrikuspenaz, eta horren ebazpenari, gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Unibertsitateko Errektorearen aurrean.

Ikasleak ez badu GRALa lehen deialdian gainditzen, GRALaren zuzendariak eta epaimahakideek lana hobetzeko gomendioak helaraziko dizkiote, hurrengo deialdirako kontuan hartu beharko dituenak.

Bigarren deialdian gainditzen ez badu, ikasleak prozesua bere osotasunean errepikatu beharko du.

Gradu amaierako lanaren defentsa aurkeztu eta ez badu defendatu "Ez aurkeztua" izango da. Matrikula egin, baina ez badu defentsarik eskatu, orduan, "Errenuntzia" izango da.

Errebisio data pasata, epaimahaiko idazkariak beste kideei jakinaraziko die aktak GAURen sinatzeko prest daudela.

4. Parte hartzen duten eragileak

GRALa burutzeko zenbait eragilek hartzen dute parte. Bakoitzaren zereginak atalez atal azalduko ditugu hemen.

4.1. GRALaren zuzendariaren eginkizunak

- Ikasleari gaiak eskaintzea, GRALa kudeatzeko programak ezarritako urratsei jarraiki (titulua, deskribapena, helburuak, egin beharreko lanak, materiala...).
- GRALak izan ditzakeen inplikazio etikoekiko derrigorrezko prozedura zuzen gauzatu dela ziurtatzea.
- Ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea.
- GRALa egitera bideratutako irakaslanetan parte hartzea.
- Ikasleari lana prestatzeko orientabidea ematea.
- Lan horri segimendua egitea.
- Prozesua eta egindako lana ebaluatzea, plagioa eta intelijentzia artifizialaren erabilera barne.
- Defentsa eskaerari erantzutea.
- Zuzendariaren oniritzi txostena GAURera igotzea.
- Zuzendaritzapean dituen ikasleen lanak ebaluatzea eta beste GRAL batzuen

epaimahaletan izatea eta lan horiek kalifikatzea.

- Ikasleari defentsa egunaren, orduaren, gelaren eta prozeduraren berri ematea.

4.2. Ikaslearen eginkizunak

- Gaia hautatzea (lan proposamenak prestatzea).
- GRALak izan ditzakeen inplikazio etikoen aurrean, dagokion derrigorrezko prozedura zuzen gauzatu dela ziurtatzea.
- Prestakuntza-saioetan, jarraipen-mintegietan eta tutoretzetan parte hartzea eta zuzendariak eskatutako zereginak burutzea.
- GRALa prestatzen inplikatzeko, ekarpenak eginez eta hainbat eginkizun bere gain hartuz, ikuspegi pertsonalizatuaz eta jardun autonomoan oinarrituta.
- Lanak emateko egutegia zuzendariarekin adostea eta betetzea.
- GRALa modu autonomoan eta arduraz garatzea.
- GRALa matrikulatzea.
- GRALa ADDIra igotzea.
- GRALaren defentsa eskatzea eta defentsa egitea.
- GRALa ebaluatzeko eta hobetzeko prozesuetan parte hartzea.

4.3. Epaimahaia

- Idazkaria gainontzeko epaimahaikideekin harremanetan jarriko da ikasle bakoitzaren defentsa eguna⁴, ordua eta gela adosteko.
- Ikasleen defentsa-txandak zehaztuko dira, eta gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie ikasleei zuzendariaren bitartez.
- Epaimahaiak ikasleen defentsa hurrenkera zehaztuko du, 2.4 atalean adierazitako denbora tarteak eta prozedura kontuan hartuta.
- Epaimahaikide bakoitzak GRALa aztertu eta ebaluatuko du, ebaluazio-orriaren irizpideak kontuan hartuz (5. eranskina).

⁴ Uztaileko deialdiaren kasuan, egun zehatza kronograman zehaztuta dago. Ikus webguneko dokumentua: <https://www.ehu.eus/documents/d/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/kronograma-2024-25> Iraileko eta otsaileko deialdietan, eguna epaimahaikideek adostuko dute defentsetarako zehaztutako egun tartean.

- Defentsa egunean ikaslearen ahozko aurkezpena entzun eta lanari begirako ekarpen, balorazio eta galderak egingo dizkio ikasleari, beti ikuspegi eraikitzaile batetik.
- Epaimahaiko idazkariari dagokio ikasleen notak grabatzea.
- Irakasgaiaren GAUReko akta sinatu beharko dute epaimahaikide guztiek.

4.4. GRAL Batzordea

Minorretako GRAL koordinatzaileek, GRAL teknikariak eta GRAL Dekanordeak osatzen dute GRAL Batzordea. Batzordearen eginbeharrak hauek izango dira:

- Ildo eta gaien eskaintza antolatzea. GRALerako gaien zerrenda balidatzea eta argitaratzea.
- Egutegia zehaztea: izen-ematea, gaien eskaintza aurkeztea, esleipenak...
- Ikasleei prozedura osoaren eta epeen berri aurrez ematea.
- Tribunalak eratzea.
- Irakasleek eta ikasleek behar duten formakuntza antolatzea.
- Urtero balorazio bat egitea eta hobetu beharreko puntuak identifikatzea.

ERANSKINAK

1. eranskina: GRALaren ildo nagusiak lantzeko aztergai orientagarriak

ILDOA	ADIBIDEAK
Hezkuntza-eragileak	• Praktiketako ikasleek egindako irakaskuntza-ekintzei buruzko analisía eta behaketa • PTaren funtzioen deskribapena eta analisía • Aholkularien funtzioen deskribapena eta analisía • Kanpoko laguntza-zerbitzuen azterketa • Antolakuntza akademikoa: zuzendaritza-mintegiak, tutoretza-planak • Eremu ez-formaleko hezkuntza-proposamenen inguruko analisía
Irakasle-identitatea	• Autobiografia: Norberak bere irakasle-ibilbideari teorían eta praktíkan buruzko narrazioa eta azterketa. • Bizitza-historia: Norberak bere autobiografían oinarrituta eta beste Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako irakasle baten edo batzuen ibilbidearekin erlazíon jarrita, egiten duen bere ibilbide profesionalaren teorían eta praktíkan narrazioa eta azterketa.
Irakaskuntza- eta ikaskuntza-ekintzak	• Metodología berritzaileak: ikasketa kooperatiboa (bikoteka irakurtzen, bikoteka idazten), proiektuak, laguntza-taldearen antolaketa • Hezkuntza-zentro bateko ikasleen aniztasunari erantzuten dioten neurri orokor eta arrunten nahiz ez-ohikoen inguruko analisía eta hobekuntza-proposamenak • Ebaluazio-tresnen diseinua eta hobekuntza-proposamenak • Hezkuntza-alorreko informazioa eskuratzeko tresnen diseinua • Curriculumak: Irakaskuntza-egoeren diseinu eta analisiari buruzko lan teoríko-praktíkoak prestatzea; ikaskuntza-sekuentzia didaktíkoak diseinatzea eta, ahal izanez gero, ezartzea... • Ikasmateríalen egokitzapen-lana • Bizikidetzak eta hezkuntza emozionala: genero-berdintasuna, gatazken trataera, dolua... • Arloko mintegiak: matematíka; hizkuntza (bikoteka irakurtzen/idazten; ingelese...); adierazpenak (antzerkia, musíka...)

	• Ikasturte batean tutoretzaren alderdirik garrantzitsuenak planifikatzea
Hezkuntza-tresnak	• Hezkuntza-materialak diseinatzea eta/edo aztertzea eta/edo ebaluatzea: ikasliburuak, curriculum- eskaintza inprimatuak • Beste hezkuntza-baliabide batzuei, sarean egindako lanari, baliabide digitalei... buruzko txosten bat prestatzea • Hezkuntza-berrikuntzako zentroek zein hezkuntza-baliabideen zentroek egindako proposamenak aztertzea eta analizatzea: berritzeguneak, ingurumen-baliabideen zentroak, museoak, hizkuntzak... • Eskolako laguntza-planaren deskribapena eta analisia • Banako Curriculum Egokitzenaren barneratzeko tresna. Erabilitako prozedura eta proposamenak • Ikastetxetako aniztasunari erantzuteko ohiko neurrien azterketa • Ikastetxetako aniztasunari erantzuteko ez-ohiko neurrien azterketa • Kulturartekotasunaren trataera eskolan • Sendotzeko programen (errefortzuen) deskribapena eta analisia: PROA, HIPI, PREE, HTB... • Laguntza-ereduen azterketa • Ikasleek erabiltzen dituzten laguntza teknikoak • Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak • Ikasle gorraren eskolatze elebiduna
Sortzen ari diren ildo berriak	• Ikastetxe bateko erakunde-planak berrikusteko protokoloa aztertzea eta, hala egokituz gero, proposatzea: ICP (Ikastetxeko Curriculum Proiektua), IHP (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua), TP (Tutoretza-plana), OAPP (Orientazio Akademiko eta Profesionalaren Plana), AEP (Aniztasunari Erantzuteko Plana), BP (Bizikidetza Plana)... • Berrikuntza-proiektuak: ikaskuntza-komunitateak, hizkuntza-plan integratua, eskola iraunkorra, curriculumaren proiektuen arabera • Ikastetxeetan erantzun orokorrak behar dituzten hezkuntza-alderdiak aztertzea eta horiek hobetzeko proposamenak egitea, hala nola eskola-porrotak, absentismoa, bizikidetza edo kulturen arteko hezkuntza, berdintasun-plana • Ikaskuntza-emaizten jarraipenerako eta hobekuntzarako planak • Ikastetxearen aniztasunari erantzuteko ez-ohiko neurrien azterketa • Ikasketa kooperatiboa: ikuspegi globala • Sare edo hezkuntza proiektu berritzaileak

2. eranskina: Azalerako eredua



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

IZENBURUA / TÍTULO

(EHUSerif 18, maiuskulaz, beltza, lerroarte bikoitza, zentratua)

GRADU AMAIERAKO LANA / TRABAJO FIN DE GRADO

(EHUSans 15, maiuskulaz, beltza, lerroarte bikoitza, zentratua)

NAN / DNI

EGILEA / AUTOR

GRADUA / GRADO

ZUZENDARIA / DIRECTOR

(EHUSans 12, minuskulaz, beltza, lerroarte bikoitza, ezkerretara justifikatuta)

DEIALDIA – URTEA / CONVOCATORIA – AÑO

EHUSans 12, maiuskulaz, beltza, lerroarte bikoitza, zentratua

3. eranskina: GRALak dakartzan inplikazio etikoak aitortzeko dokumentua

GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO ADIERAZPENA

Behean sinatzen dutenek (ikasleak eta tutoreak) adierazten dute honako alderdi hauek egiazkoak direla:

Ikaslearen izen-abizenak	
Ikaslearen posta elektronikoa	
Tutorearen izen-abizenak	
Tutorearen posta elektronikoa	
Proiektuaren izenburua: ☐ GRAL ☐ MAL	
Proiektuaren laburpen laburra (gehienez 150 hitz)	
Saila:	
Ikastetxea:	
Graduaren edo masterraren izena	

Planteatutako lanak barnebiltzen du (markatu dagokiona):

- ☐ Gizakien behaketa
 - ☐ Inkesta, elkarrizketa, eztabaida-talde eta abarren bidez datu pertsonalak lortzea.
 - ☐ Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak
 - ☐ Beste jardura mota batzuk pertsonekin edo kolektiboekin (zehaztu)
-
- ☐ Aurreko ezer ez (zehaztu)

Adierazitako aukeretako bat edo batzuk badaude, behean sinatzen dutenek konpromiso hauek hartzen dituzte:

☐ Parte hartzen duten pertsona guztien baimen informatua jasotzea. Horretarako, honako betebeharrak hauek hartzen ditugu gure gain: a) azterketaren izaerari eta horrek ekar ditzakeen onurei buruzko informazioa modu ulergarrian ematea; b) eskatutako parte-hartze mota eta emaitzei emango zaien erabilera akademikoa zehaztea; c) azterketak sor ditzakeen eragozpenak edo arriskuak zehaztea; d) azterlanean ez parte hartzeko edo haren baimena edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dutela argi uztea, zenbait kalte edo diskriminaziorik eragin gabe; e) lortutako datuei eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela adieraztea, hala nahi izanez gero. f) Parte-hartzaileen anonimitasuna bermatzea, haien nortasuna babesteko eta jendaurrean agertzearen ondoriozko arriskurik ez izateko.

☐ Datuen konfidentzialtasuna bermatzea. Horrek barne hartzen du egiletza ez jakinarazteko konpromisoa, parte-hartzaileen segurtasunaren mesedetan, eta informazio hori Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen legediaren arabera erabiltzekoa. Argitaratzean parte-hartzailea aipatu behar bada, haren baimena beharko da.

☐ Aurreko puntuetan adierazitakoari dagokionez, arreta handiz jokatzeko azterlaneko parte-hartzaileak adingabeak direnean edo, oro har, edozein kolektibo kalteberetako pertsonak direnean.

☐ Datuak babesteari buruzko legeria ezagutzea eta betetzea. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko; 2016/680 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko.

_____en, 201_(e)ko_____aren_____(e)an

Sin.: Tutorea

Sin.: Ikaslea

4. eranskina: Zuzendariaren ebaluazio-orria

Lanaren izenburua: _____

Zuzendaria:

Ikaslea: _____

Gradua: _____ Minorra: _____

[illegible]

2.1 Lanaren garrantzia koherentziaz arrazoitu du eta prozesua defendatu du.											
2.2 GRALaren azken txostenaren idazketan, arloaren hizkuntza espezializatua eta akademikoa egoki erabili du.											
2.3 GRALaren idazketa formazko eta egiturazko oinarrizko irizpideak errespetatuta egin du.											
2.4 Hizkuntza koherentziaz, egokitasunez eta zuzen erabili du, hiztegi eta erregistro egokiak erabiliz, gramatika eta grafia akatsik gabe etab.											
2.5 Hizkuntza inklusiboa erabili da.											
2.6 Hezkuntzari buruzko diskurtso propioa, koherentea eta kritikoa eraiki du											
2.7 Sistematizaziorako konpetentzia duela adierazi du, baita analisi kritikoa egiteko eta sintesirako konpetentzia ere.											
Diseinua eta plangintza											
2.8 Lanaren diseinua eta plangintza modu argian zehaztu du.											
2.9 Galdera edo/eta helburu sorta egoki zehaztu ditu.											
2.10 Lanaren egitura zehaztu du (helburuak, baliabideak, metodologia, informazioaren analisisa, besteak beste).											

2.11 Aukeraketa metodologiko aproposa egin du lanaren helburuak aintzat hartuta										
Garapena										
2.12 Oinarri teoriko sendoa erakutsi du eta erreferentzia bibliografiko esanguratsuak eta gaurkotuak erabili ditu.										
2.13 Ongi aukeratu du gaiari buruzko literatura eta koherentziaz erlazionatu du GRALean ezarritako helburuekin.										
2.14 Lanaren garapen-prozesuaren barne-koherentzia adierazi du										
Balorazioa, hobekuntza eta prospektiba										
2.15 Esparru teorikoaren eta emaitzen arteko eztabaida sendoa eraiki du.										
2.16 Bildutako informazioa sistematikoki eta zehaztasunez aztertu eta interpretatu du eta planteamendu teoriko edo enpirikoetan oinarritutako ondorioak zehaztu ditu.										
2.17 Emaitzetatik abiatuz, etorkizunera begirako erronkak identifikatu ditu.										
BALORAZIO OROKORRA										

5. eranskina: Epaimahaikideen ebaluazio-orria

Lanaren izenburua: _____

Zuzendaria: _____

Ikaslea: _____

Gradua: _____ Minorra: _____

1. GRALaren BAKARKAKO AHOZKO DEFENTSA (%50)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1.1 Lana argi eta modu antolatuan aurkeztu du, azaldutako kontzeptuak ondo lotuz										
1.2 Zuzentasunez azaldu ditu GrALa bideratu duten galdera/helburuetatik eratorritako ildo eta ideia nagusiak.										
1.3 Hizkuntza koherentziaz, egokitasunez eta zuzentasunez erabili du										
1.4 Aurkezpenerako euskarria modu egokian erabili du, dinamika egokia sortuz ahozkoaren eta euskarriaren artean.										
1.5 Komunikaziorako estrategia egokiak erabili ditu.										

1.6 Epaimahaikideen galderei egoki eta segurtasunez erantzun die.										
2. LAN IDATZIA (%50)	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Hizkuntza eta gogoeta maila										
2.1 Lanaren garrantzia koherentziaz arrazoitu du eta prozesua defendatu du.										
2.2 GRALaren azken txostenaren idazketan, arloaren hizkuntza espezializatua eta akademikoa egoki erabili du.										
2.3 GRALaren idazketa formazko eta egiturazko oinarrizko irizpideak errespetatuta egin du.										
2.4 Hizkuntza koherentziaz, egokitasunez eta zuzen erabili du, hiztegi eta erregistro egokiak erabiliz, gramatika eta grafia akatsik gabe etab.										
2.5 Hizkuntza inklusiboa erabili da.										
2.6 Hezkuntzari buruzko diskurtso propioa, koherentea eta kritikoa eraiki du										
2.7 Sistematizaziorako konpetentzia duela adierazi du, baita analisi kritikoa egiteko eta sintesirako konpetentzia ere.										
Diseinua eta plangintza										

2.8 Lanaren diseinua eta plangintza modu argian zehaztu du.											
2.9 Galdera edo/eta helburu sorta egoki zehaztu ditu.											
2.10 Lanaren egitura zehaztu du (helburuak, baliabideak, metodologia, informazioaren analisia, besteak beste).											
2.11 Aukeraketa metodologiko aproposa egin du lanaren helburuak aintzat hartuta											
Garapena											
2.12 Oinarri teoriko sendoa erakutsi du eta erreferentzia bibliografiko esanguratsuak eta gaurkotuak erabili ditu.											
2.13 Ongi aukeratu du gaiari buruzko literatura eta koherentziaz erlazionatu du GRALean ezarritako helburuekin.											
2.14 Lanaren garapen-prozesuaren barne-koherentzia adierazi du											
Balorazioa, hobekuntza eta prospektiba											
2.15 Esparru teorikoaren eta emaitzen arteko eztabaida sendoa eraiki du.											
2.16 Bildutako informazioa sistematikoki eta zehaztasunez aztertu eta interpretatu du eta planteamendu teoriko edo enpirikoetan oinarritutako ondorioak zehaztu ditu.											

2.17 Emaitzetatik abiatuz, etorkizunera begirako erronkak identifikatu ditu.										
BALORAZIO OROKORRA										